

Compte rendu du Conseil municipal du 04 février 2018

Elus présents : Arño Gastambide, Fred Hernandez, Maite Oxarango, Maite Etchart-Duhalde, Chantal Echevertz, Patrick Barnetche, Gerard Soullignac, Sabine Etcheverry, Isabelle Gary, Samuel Biscay
Elus excusés : Leire Barbier, Mizel Etcheberry, Sebastien Etchegaray
Le compte rendu du conseil municipal du 17 décembre est approuvé.

Point n°1 : Compétence facultatives de la CAPB.

Les élus prennent connaissance du tableau ci-dessous résumant les prises de compétences prises par la CAPB depuis sa naissance.

Les politiques socles

Réussir le changement d'échelle des politiques publiques par l'harmonisation et la mise en synergie

- Urbanisme et aménagement de l'espace
- Habitat et gens du voyage
- Infrastructures et mobilités
- Développement économique
- Equipements sportifs et culturels et de services à la population
- Gestion intégrée du cycle de l'eau
- Prévention, collecte et valorisation des déchets

Les politiques volontaristes

Être au RDV de la différenciation territoriale pour répondre aux nouvelles attentes sociétales

- Agriculture, agroalimentaire, pêche
- Enseignement supérieur, recherche et formation
- Politique linguistique
- Climat air énergie
- Alimentation durable
- Tourisme
- Partenariats culturels
- Cohésion sociale
- Aménagement numérique

Les politiques de développement territorial

Adapter les politiques publiques par la valorisation de la diversité des territoires

- Ingénierie aux territoires, développement urbain et rural
- Politique de la ville
- Montagne
- Littoral
- Coopération transfrontalière et européenne

Les élus prennent connaissance du tableau ci-dessus résumant les prises de compétences prises par la CAPB depuis sa naissance.

Herriko Kontseiluaren 2018ko otsailaren 4ko bilkuraren bilduma

Hor ziren hautetsiak: Arño Gastambide, Fred Hernandez, Maite Oxarango, Maite Etchart-Duhalde, Chantal Echevertz, Patrick Barnetche, Gerard Soullignac, Sabine Etcheverry, Isabelle Gary, Samuel Biscay.

Ezin jina jakinarazi zuten hautetsiak: Leire Barbier, Mizel Etcheberry, Sebastien Etchegaray.

Abenduaren 17ko Herriko Kontseiluaren bilkuraren bilduma onartua da.

1. puntua: Euskal Hirigune Elkargoaren hautuzko eskumenak.

Hautetsiek ondotik ageri den taularen berri hartzen dute; taula honetan Euskal Hirigune Elkargoak, sortu denetik, hartu dituen eskumenak laburbilduak dira.

Oinarritzko politikak

Politika publikoen mailaz aldatzea kausitu, harmonizatzeari eta sinergian ezartzeari esker

- Urbanismoa eta espazioaren antolatzea
- Bizitegiak eta jende ibiltariak
- Azpiegiturak eta mugikortasunak
- Garapen ekonomikoa
- Kirol, kultura eta jendeari zuzendu zerbitzuetarako muntadurak
- Uraren zikloaren kudeaketa integratua
- Hondarkinen saihestea, biltzea eta berriz baliatzea

Politika boluntaristak

Lurraldeen desberdintzea ez huts egin, jendarteak igurikatzen duenari ihardesteko

- Laborantza, hazkurri industria, arrantza
- Goi mailako irakaskuntza, ikerketa eta formakuntza
- Hizkuntza politika
- Klima, airea, energia
- Elikadura iraunkorra
- Turismoa
- Kultura partaidetzak
- Kohesio soziala
- Antolamendu numerikoa

Lurralde garapeneko politikak

Politika publikoen egokitzea, lurraldeen aniztasuna baliatuz

- Lurraldeei eskaini ingeniari, hiriko eta kanpainako garapena
- Hiriko politika
- Mendia
- Itsasbazterra
- Mugaz gaindiko eta Europar barnako lankidetzak

Hautetsiek gain honetako taularen berri hartzen dute; taula honetan Euskal Hirigune Elkargoak, sortu denetik, hartu dituen eskumenak laburbilduak dira.

Les travaux sur le Projet ont fait émerger une ambition forte : affirmer la Communauté Pays Basque comme **un acteur majeur des politiques publiques de son territoire** et comme une référence de l'action publique au niveau régional et national.

Au total, ces politiques publiques couvrent une quarantaine de compétences obligatoires, optionnelles et facultatives et s'articulent en trois grands champs d'action : les politiques socles, les politiques volontaristes et les politiques de développement territorial.

Au cours de sa séance du 15 décembre 2018, le Conseil communautaire de la Communauté d'Agglomération Pays Basque s'est prononcé favorablement sur l'adoption de nouvelles compétences facultatives, afin de renforcer l'action communautaire au sein de son territoire.

- Gouvernance, stratégie et action en faveur de la préservation du foncier agricole

Il est précisé que le territoire et l'ensemble de ses acteurs manquent aujourd'hui de données, ouvertes et à échanger, dans l'objectif de partager un diagnostic complet en matière de foncier agricole, et en mesure d'alimenter une stratégie commune.

Pour la Communauté d'Agglomération, les attendus, « en aval » d'une stratégie foncière agricole, sont multiples :

- Assurer la disponibilité et la vocation agricole de surfaces d'intérêt pour l'activité agricole ;
- Permettre et conforter l'activité agricole par l'expérimentation et l'installation sur les terrains ainsi préservés ;
- Limiter les phénomènes de spéculation par la régulation du marché du foncier agricole ;
- Maintenir un espace agricole et un territoire habités et entretenus ;
- S'impliquer fortement dans la nécessaire mutation énergétique et écologique du territoire.

La maîtrise collective et publique de ce foncier agricole peut en effet permettre :

- soit à des exploitants hors cadre familial de s'installer dans des conditions économiques plus accessibles ;
- soit de mettre à disposition de porteurs de projet un outil en phase de test ;

Proiektuari buruzko lanek anbizio azkar bat agerrarazi dute: Euskal Elkargoa **bere lurraldeko politika publikoen eragile nagusi gisa** eta eskualde eta estatu mailako ekintza publikoaren erreferentzia gisa agerrarazi.

Orotara, politika publiko horiek berrogei bat eskumen hartzen dituzte —nahitaezkoak, aukerakoak eta hautuzkoak—, eta hiru ekintza eremu handitan antolatua dira: oinarritzko politikak, politika boluntaristak eta lurralde garapeneko politikak.

2018ko abenduaren 15eko bilkuran, Euskal Hirigune Elkargoko Herriarteko Kontseilua beste hautuzko eskumen batzuen hartzearen alde agertu da, bere lurraldean elkargoaren ekintza indartzeko.

- Laborantza lurren atxikitzearen aldeko gobernantza, estrategia eta ekintza

Zehaztua da lurraldeak eta eragileek, gaur egun, trukatzeko datu irekiak eskas dituztela; holako datuek laborantza lurrari buruzko diagnostiko oso baten partekatzeko eta estrategia komun baten hornitzeko parada emanen lukete.

Euskal Elkargoak anitz igurikatzen du laborantza lurrei buruzko estrategiaz:

- Laborantza jarduerarendako interesa duten lur eremuak laborantzarendako atxikiak eta eskuragarriak izanen direla segurtatzea;
- Laborantza jarduerari bidea eta indarra eman, hola atxiki lurretan posible izanen diren esperimentazioei eta instalazioei esker;
- Espekulazio fenomenoak mugatu, laborantza lurren merkatuaren erregulazioaren bidez;
- Bizi diren eta artatuak diren laborantza eremua eta lurraldea atxiki;
- Lurraldean egin beharreko aldaketa energetikoan eta ekologikoan azkarki inplikatu.

Laborantza lur horien jabetasun kolektibo eta publikoak, alabaina, ondoko ondorioak ukaiten ahal ditu:

- familiatik kanpo instalatzen diren laborari batzuek, merkeago instalatzeko posibilitatea;
- probatzen ari den tresna bat proiektu eramaile batzuen esku uzteko posibilitatea;

- soit de mettre à disposition un support pour la mise en œuvre d'expérimentations.

La préfiguration des outils.

Cette préfiguration associera l'ensemble des acteurs concernés (SAFER, EPFL, organisations agricoles, ...) dont les initiatives sont déjà présentes sur le terrain, soit par les outils professionnels et institutionnels soit par l'initiative citoyenne et paysanne (LURZAINDIA).

De ce constat collectif devra découler le dispositif pertinent pour une action efficace.

Il permettra à minima un maintien des espaces de production agricole actuels. Il pourra aussi assurer une fonction de régulation pour aller au-devant de toute action de spéculation foncière.

Il conviendra d'envisager la création d'un stock foncier agricole public qui pourra servir de socle à cette politique efficace de soutien à l'expérimentation et à l'installation.

Accord à l'unanimité du conseil municipal qui ne peut qu'être d'accord avec ces principes. Il sera rédigé un courrier d'accompagnement au président Mr Etchegaray qui insistera sur la l'ouverture de ces travaux à toutes les associations présentes sur le terrain.

- Promotion et soutien d'une alimentation saine et durable pour tous

Définition et la mise en œuvre du Projet Alimentaire de Territoire

Animation d'une gouvernance avec tous les acteurs du territoire, dont le conseil local de l'alimentation

Accompagnement des communes dans la mise en œuvre de leur politique de restauration collective

Sensibilisation du grand public au mieux/bien manger.

Des élus déplorent quelque peu le peu de place et même la concurrence faite aux associations œuvrant sur le terrain.

Comme pour le foncier, Il sera rédigé un courrier d'accompagnement au président Mr Etchegaray qui insistera sur la l'ouverture de ces travaux à toutes les associations présentes sur le terrain.

Cette compétence est acceptée à la majorité avec deux abstentions.

- Stratégie, actions et animation partenariale de projets en faveur du développement durable de la montagne basque

Elaboration et l'animation d'une stratégie

- oinarri bat eskuragarri bilakatzea, esperimentazio batzuk plantan ezartzeko.

Tresnak aitzinetik itxuratzea.

Tresnak aitzinetik itxuratzeko lan hortan, hunkiak diren eta —edo tresna profesional eta instituzionalen bidez, edo hiritarren eta laborarien inizatibaz (LURZAINDIA)— eremu hortan jadanik ari diren eragile guziek parte hartuko dute (SAFER egitura, Tokiko Lurren Establimendu Publikoa, laborantza alorreko erakundeak...).

Diagnostiko kolektibo hortarik, ekintza eraginkorra ekarriko duen dispositibo pertinetea atera beharko da.

Gutienez, orain dauden laborantza-produkzio eremuak atxikitze bidea ekarriko du. Erregulazio funtzio bat ere betetzen ahalko du, lur espekulazio operazio orori buru egiteko.

Laborantza lur erreserba publiko bat pentsatu beharko da, esperimentazioaren eta instalazioaren laguntzeko politika eraginkor horren oinarri gisa baliatzeko.

Herriko Kontseilua aho batez ados agertu da, bistan dena. Gutun osagarri bat idatziko zaio Etchegaray lehendakariari, non azpimarratuko baita lan horiek eremu hortan ari diren elkarte guzietan ireki behar zaizkiela.

- Denendako elikadura sano eta iraunkorraren promozioa egitea eta sustatzea

Lurraldeko Elikadura Proiektuaren definizioa egitea eta plantan ezartzea.

Gobernantzaren animatzea, lurraldeko eragile guziekin, elikaduraren tokiko kontseilua barne.

Herriak beren ostalaritza kolektiboko politika plantan ezartzen laguntzea.

Publiko zabala hobeki/ongi jatearen inportantziaz ohartaraztea.

Hautetsi batzuek doi bat deitoratzen dute sail hortan ari diren elkarteei leku guti uztea eta konkurrentzia ere egitea.

Lurraren gaiaren kasuan bezala, gutun osagarri bat idatziko zaio Etchegaray lehendakariari, non azpimarratuko baita lan horiek eremu hortan ari diren elkarte guzietan ireki behar zaizkiela.

Eskumen hori gehiengoz onartua da, bi abstentziorekin.

- Euskal Mendiaren garapen iraunkor-raren aldeko estrategia, ekintzak eta animazioak (partaidetzan burutu beharrak)

territoriale transversale dédiée à la montagne et déclinée en actions opérationnelles

Animation de l'ensemble des acteurs publics et privés de la montagne pour l'émergence et l'accompagnement de projets locaux durables s'inscrivant dans les politiques et compétences de la Communauté d'Agglomération Pays Basque

Portage et/ou co-portage partenarial de démarches et projets transversaux et multithématiques pour le territoire de montagne tels que le programme Leader, le Guide des bonnes pratiques de la montagne, l'animation de schémas de massifs [« Gure Mendia », Baigura] ,..., les outils et réflexions de développement durable tels que le Parc Naturel Régional

Développement de partenariats et la participation à des réseaux et projets montagne nationaux, transfrontaliers et internationaux

Prise de compétence acceptée à l'unanimité.

Eaux Pluviales Urbaines (étant précisé, pour cette dernière, que la loi du 3 août 2018 prévoit, de façon expresse, que cette compétence relève de la catégorie des compétences facultatives d'une communauté d'agglomération jusqu'au 1er janvier 2020. Au-delà, elle basculera dans le champ des compétences obligatoires de la Communauté d'Agglomération)

Gestion des eaux pluviales urbaines sur une partie du territoire correspondant au secteur 1 (le littoral). Pour l'ensemble des autres communes, la compétence facultative, exercée par la Communauté d'Agglomération Pays Basque jusqu'au 1^{er} janvier 2020, comprendra uniquement :

- les études et diagnostics technico-financiers permettant la connaissance du patrimoine et des charges associées ;
- l'assistance technique aux communes pour l'avancement de leurs schémas directeurs et projets d'investissement ;
- la continuité des dossiers pris en charge par la Communauté d'Agglomération avant la promulgation de la loi du 3 août 2018.

Prise de compétence acceptée à l'unanimité.

Pour pouvoir être définitivement retenues au niveau communautaire, ces compétences nécessitent de recueillir l'accord des communes membres.

Le Maire doit, en conséquence, consulter le conseil municipal sur chacune de ces quatre propositions de compétences, ce qui est fait.

Point N°2: Suppression et aliénation d'une portion du chemin rural dit de Christouneko

Mendiari zuzendu lurraldeko zeharkako estrategiaren eraikitzea eta animatzea, egin daitezkeen ekintzetan deklinaturik.

Mendiko eragile publiko eta pribatu guzien animatzea, Euskal Hirigune Elkargoaren politiketan eta eskumenetan sartzen diren lekuko proiektu iraunkorrak ager daitezen.

Mendiko lurraldearen aldeko zeharkako eta gai anitzen inguruko desmarxa eta proiektuen eramatea, bakarrik edo elkarrekin, hala nola «Euskal Mendietan Ibili eta Bizi» gida-liburuaren Leader programa, mendiguneen eskema batzuen animatzea [«Gure Mendia», Baigura], garapen iraunkorraren aldeko gogoeta tresnak, hala nola Eskualdeko Parke Naturala.

Partaidetzen garatzea eta maila nazionaleko, mugaz gaindiko eta nazioarteko mendi sareetan eta proiektuetan parte hartzea.

Eskumenaren hartzea aho batez onartua da.

Hiriko Euri Urak (azken horrendako, zehaztua da 2018ko agorrilaren 3ko legeak argi eta garbi erabakitzen duela eskumen hori hirigune elkargo baten hautuzko eskumenen kategorian sartzen dela, 2020ko urtarrilaren 1.a arte. Ondotik, Euskal Hirigune Elkargoaren nahitaezko eskumenen eremuan sartuko da)

Hiriko euri uren kudeatzea, 1. eremuari doakion lurraldearen parte batean (itsasbazterra). Beste herri guzietako, Euskal Hirigune Elkargoak 2020ko urtarrilaren 1.a arte erabiliko duen hautuzko eskumenak ondoko eginkizunak hartuko ditu, bakarrik:

- ondarearen eta hari lotu karguen ezagutzeko bidea emanen duten teknika-finantza ikerketak eta diagnostikoak;
- herriei ekarri laguntza teknikoa, beren eskema nagusien eta inbestimendu proiektuen aitzinatzeke;
- Euskal Hirigune Elkargoak 2018ko agorrilaren 3ko legea indarrean sartu aitzin bere gain hartu dosierren segida.

Eskumenaren hartzea aho batez onartua da.

Elkargo mailan behin betiko atxikiak izateko, eskumen horiek kide diren herrien adostasuna bildu behar dute.

Ondorioz, auzapezak herriko kontseiluari bere iritzia galdegin behar dio lau eskumen proposamenen inguruan; hori egina da.

2. puntua: Christouneko karrika izeneko baserri-bidea (HARAMBOURE) kentzea eta

karrika (HARAMBOURE).

Comme évoqué lors d'un précédent conseil municipal, un accord de principe est donné par l'assemblée à la demande de M. HARAMBOURE André tendant à l'acquisition d'une portion du chemin rural dit de Chistouneko karrika. En effet, cette portion est incorporée dans ses parcelles (divise ses parcelles en deux).

Accord de cession à Mr HARAMBOURE de la portion du chemin rural dit de Christoune d'une superficie de 18 a 71 ca, au prix de cession à 0,80 le m2,

Les frais afférents à cette cession seront à la charge de M. HARAMBOURE et l'acte de cession sera rédigé en la forme administrative.

L'enquête publique correspondante sera ouverte.

Point n° 3 : Reversement dons.

Rappel est fait au Conseil Municipal sur l'accord donné à un groupe de villageois pour que la commune encaisse les dons issus d'une collecte pour venir en aide à un agriculteur (Mr Dunate) ayant subi un sinistre incendie.

La somme collectée d'un montant de 12 867 € sera reversée à l'agriculteur touché.

Point n°4 : Inspection dans le domaine de l'hygiène et sécurité au travail.

Comme le prévoit le décret n°85-603 du 10 juin 1985 modifié relatif à l'hygiène et à la sécurité du travail ainsi qu'à la médecine professionnelle et préventive dans la fonction publique territoriale, la désignation d'un agent chargé d'assurer une fonction d'inspection dans le domaine de l'hygiène et de la sécurité au travail (ACFI) et obligatoire dans toute collectivité.

Cette fonction d'inspection consiste à :

- Vérifier les conditions d'application de la réglementation
- proposer toute mesure de nature à améliorer l'hygiène et la sécurité du travail et la prévention des risques professionnels

Il est possible de confier cette fonction, par convention, au Centre de Gestion. Les conditions et modalités d'intervention sont fixées dans la convention d'inspection.

L'autorisation est donnée à Mr le Maire afin de confier au Centre de Gestion de la Fonction Publique Territoriale des Pyrénées Atlantiques la fonction d'inspection en matière d'hygiène et de sécurité prévue par le décret n° 85-603 du 10 juin 1985 modifié et à signer la convention prévue.

bestereentzea.

Aitzineko herriko kontseilu batean aipatu bezala, herriko kontseiluak printzipiozko adostasuna agertzen du HARAMBOURE André jaunaren eskaerari buruz; horrek Christouneko karrika izeneko baserri-bidearen parte bat erosi nahi du. Alabaina, bide parte hori haren lursailen barnean da (haren lursailak bitan zatitzen ditu).

HARAMBOURE jaunari Christoune izeneko baserri-bidearen zatia saltzea adostu da; bide zati horren zabalera 18 a 71 ca-koa da, eta m2-a 0.80 eurotan salduko zaio.

Salmenta horri doazkion gastuak HARAMBOURE jaunaren gain izanen dira eta salmenta agiria molde administratiboan idatziko da.

Doakion inkesta publikoa irekiko da.

3. puntua: emaitzen itzultzea.

Herriko Kontseiluari oroitarazten zaio herritar talde batekin adostu dela herriak altxatuko duela sute bat pairatu duen laborari bat (Dunate jauna) laguntzeko bildu sosa.

Bildu 12 867 €-ak desmasiak pairatu dituen laborariari emanen zaizkio.

4. puntua: Laneko higienaren eta segurtasunaren alorreko ikuskatzea.

Lurraldeko funtzio publikoko laneko higienari eta laneko segurtasunari, bai eta laneko eta prebentziozko medikuntzari buruzko 1985eko ekainaren 10eko 85-603 dekretu aldatuak zehaztu bezala, edozein elkargotan nahitaezkoa da laneko higiena eta segurtasuna ikuskatzeko ardura ukanen duen langile bat izendatzea.

Ikuskaritza funtzio honek ondoko eginkizunak biltzen ditu:

- Araubidea zenbateraino bete den egiaztatzea.
- Laneko higiena eta segurtasuna eta laneko arriskuen prebentzioa hobetzen ahal dituzten neurriak oro proposatzea.

Funtzio hori Kudeaketa Zentroari ematen ahal zaio, hitzarmenez. Esku hartzeko baldintzak eta moldeak ikuskaritza-hitzarmenean finkatuak dira.

Jaun Auzapezari baimena ematen zaio 1985eko ekainaren 10eko 85-603 dekretu aldatuak zehaztu laneko higienari eta laneko segurtasunari, bai eta laneko eta prebentziozko medikuntzari buruzko ikuskaritza funtzioa Pirinio Atlantikoetako Lurraldeko Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroari emateko eta aipatu hitzarmenaren izenpetzeko.

Questions diverses :

- Reprise d'une concession en état d'abandon : lancement de la procédure pour la concession au nom de LAVIE concernant la demande Mr Dithurbide André
- Accord pour un Groupement de commandes pour l'achat d'électricité soit par l'intermédiaire du SDEPA soit par la CAPB.
- Passage de la Korrika à Ayherre le 07 avril avec prise du km en lien avec la ville d'Antzuola
- Concert du printemps du comité des fêtes le 06 avril
- Fêtes d'AYHERRE le week-end du 15/16 juin.
- Elections européennes le dimanche 26 mai
- Réunion publique à Ayherre pour le PLUI vers le mois d'avril et tenue de l'enquête publique trois mois après.

Gai orotarik:

- Abandonatua den kontzesio baten hartzea: prozeduraren abiatzea, LAVIE-ren izenean den kontzesioarendako, Dithurbide André jaunaren eskaeraren ondorioz.
- Elektrizitatearen erosteko eskaera elkarteari buruzko adostasuna; edo Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatuaren bitartez, edo Euskal Hirigune Elkargoaren bitartez eros liteke.
- Korrika apirilaren 7an pasatuko da Aiherratik, eta km-a Antzuolarekin partaidetzan hartuko dugu.
- Besta Batzordeak antolatu udaberriko kontzertua, apirilaren 6an.
- AIHERRAko bestak ekainaren 15/16ko asteburuan.
- Europako hauteskundeak, maiatzaren 26an, igandearekin.
- Herriarteko Hirigintza Tokiko Planari buruzko bilkura publikoa apiril inguruan, Aiherran, eta inkesta publikoa hiru hilabete berantago.

